

GURUTZE SAINDUA

Lehen irakurgaia

(*Brontzezko sugea, salbamenduaren seinale*)

Nunbreak liburutik

21, 4b-9

- 4 **Izrael herria, basamortuan zoala, bidez asperturik, Jainkoaren eta Moisen kontra marmarikan hasi zen:**
- 5 **“ Zertarako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko? Ez dugu ogirik, ez urik, eta asperturik gaude mana delako janari txar hunekin.”**
- 6 **Orduan Jaunak herriari igorri ziozkan suge pozointsuak, eta hek ausiki-eta, Izraeldar asko hil zen.**
- 7 **Herriak Moisenagat jo zuen, eta erran zion: “ Bekatu egin dugu Jaunaren eta zure kontra marmarikan ariz. Otoitz egiozu Jaunari sugeak gureganik urrun ditzan.”**
- 8 **Moisek otoitz egin zuen herriaren alde, eta Jaunak erran zion: “ Egizu brontzezko suge bat eta ezar haga baten muturrean: ausikiak diren guziek beha diezotela eta biziko dira.”**
- 9 **Moisek brontzezko suge bat egin zuen eta hagaren muturrean ezarri. Norbait suge batek ausikia zenean, eta brontzezko sugeari so egiten zionean, bizirik gelditzen zen.**

Moisek Egiptotik eta esklabotasunetik ateratu populua Lur Saindurat abian da. Ahantzia du askatasunak eta itsasoko mirakuiluak eman bozkarioa ; orai basamortuko zailtasunari buru egin behar du.

Basamortuan, gauzarik ttipiena aberastasun bat da. Aise ulertzen dugu populuaren etsimendua, duen gose eta izialdurarekin.

Lau agerraldi hauiek kondatzen daukute brontzezko sugearen kondaira.

Lehen agerraldia : « *Izrael populua bidez asperturik Jainkoaren eta Moisen kontra marmarikan hasi zen : « zertarako atera gintuzun Egiptotik ? Basamortuan hiltzeko ? Ez dugu ogirik ez urik eta gohainditurik gaude mana delako janari txar hunekin ! ».*

Bigarren agerraldia : Jainkoak igortzen ditu sugeak. Hauek, erratzeko ausikiz, Izraeldar ainitz hiltzen dute.

Hirugarren agerraldia : populua urrikitan sartzen da : « *Bekatu egin dugu Jaunaren eta zure kontra, otoitz egiozu Jaunari sugeak gureganik urrun ditzan.* »

Laugarren agerraldia : harritzen gaituen galdea egiten dio Jainkoak Moisi : egin dezan suge bat (ohiturak erraiten dauku brontzezkoa zela), ezar dezan haga baten muturrean, eta ausikiak izanen diren guziek behatzen badiote biziko direla.

Moisen xedea da populua bihozberri dadin, populua aiherukor baita fedeari buruz. Munduko suge guziek baino gehiago, bere fede eskasak dio populuari urratsa emekitzen libertateari buruz : « *zertarako atera gintuzun Egiptotik? Basamortuan hiltzeko ?* » Hitz horiek akusatzen dituzte Jainkoa eta Moisi : « *erraiten duzue salbatu nahi gaituzuela bainan gure heriotzea nahi duzue.* »

Moisek badaki Jainkoaren ezagutzea dela egiazko bizia, erran nahi baita beti hari konfiantza egitea. Brontzezko sugea ez zen Moisek pentsatua. Lehenago, sorginkeriaz erabiltzen zen. Moisek

beste sentsu bat emaiten dio : Jainkoaren alderako fedea. Ez du sugeak sendatzen, baina Jainkoak. Jainko bat baizik ez da, herria Egiptotik atera duen hura ; hura da sendatzaile, salbatzaile bakarra.

Handik zenbait menderen buruan, Zuhurtzia Liburuak hara nola kondatzen duen gertakari hori : « *harenganat itzultzen zena onik ateratzen zen, ez ikusi irudiari esker, baizik zuri, guzien Sabatzaile horri esker* ».

Salmoa 77

Gurutzearen bidez daukuzu eman bizia !

**Gure denboran aditu eta ikasiak,
Aitzinekoek guri kondatu zer guziak,
Heien semeri ez daiteke utz ixilean:
Ondokoeri nahi ditugu denak erran.**

**Jaunak hiltzean, hasten ziren bai haren bila,
Itzultzen ziren Jaunari deika, dei-ahala.
Orroitzen ziren heien harroka Jauna dela,
Zaintzalerik ez, Jaun zerukoa den bezala.**

**Agoan denek bazabilaten ele zuri,
Bainan gezurra beren mihiak erran hori.
Heien bihotza etzen harekin zuzen ari,
Etzauden barnez, etzauden zinez Jainkoari.**

**Halere Jauna berriz eztitzen zitzaioten:
Barkatzen zuen eta ez denak hilaratzen.
Noizbait zen orroit zer den gizona: gorputz ahul,
Joaki den hats bat, bai joaki eta ezin itzul.**

77. Salmoak emaiten dauku Izraeleko ixtorioaren bilduma. Izraelen ixtorioa, bi arizalen artean idatzia izan da (Jainkoa eta populua) gizaldiz gizaldi. Jainkoa beti leial dago populu ahanzkor baten aitzinean.

Izraelek badaki orroitzapenaren premia: « *Gure arbasoek kondatu daukutena, gure ondokoeri helaraziko diotegu.* » Atzo egun bezala, fedearen helarazteko, hiru baldintza behar dira. Lehena : norbaitek egiten duela fedearen gertakari baten esperientzia, erraiten du “Jainkoak salbatu nau”; bigarrena, bere esperientzia hedatzen du; eta hirugarrena, haren anaidia esperientzia hortaz orroitzen da.

Judutarrak badaki betidanik fedea ez dela jakitate bat, baina dohainen eta barkamenduen esperientzia. Izraelen esperientziarik handiena Egiptotik ateratzea da. Salmo hunek aipatzen ditu ainitz aldiz Jalgitzako gertakariak. Esperientzia hori Aitek semeeri kondatu diete eta semek beren semeeri. Semeek nahi ukan ote dute entzun eta onetsi ? Biblian, “behatzea” eta “entzutea” da Jainkoaren Hitza onestea bihotz bihotzetik.

Aitek aitortu dute semeeri berak oldartu zirela Jainkoari, alta Jainkoak beti eskua zabaldu ziolarik populuari, hau eskergabea izanik ere.

Bigarren irakurgaia

(Jauna goretsia, Gurutzean apaldua izan ondoan)

Jondoni Paulok Filipeko girixtinoeri

2, 6-11

- 6 **Jesu Kristo, Jainkogoia ukanki eta,
ez da gogor lotu Jainkoaren berdina izaiteari.**
- 7 **Aitzitik, bere nahitara hustu da,
esklabogoa hartu, eta gizakien iduriko bilakatu.
Gizaki bezala agertuz,**
- 8 **apaldu da, hiltzeraino obedituz, gurutzean hiltzeraino.**
- 9 **Hortakotz, denen gainetik goratu du Jainkoak
eta izen guzietan gorena eman dio,**
- 10 **Jesusen izenaren ohoretan,
zeruan, lurpean eta lurpean, guziak belaunika daitezen,**
- 11 **eta mihi orok aitoren dezan
Jaun dela Jesu Kristo Jainko Aitarenekin aintzarako.**

"Hortakotz, denen gainetik goratu du Jainkoak..." "Hortakotz" : iduri luke Jainko Aitak sari bat bezala eman diola Jesusi goratze hori, apaldu delakotz. Ez, Jainkoak emaiten duen guzia urrik emaiten du, ez zerbaiten ordain, mereximenduen ordain, bainan bai, erraiten den bezala "grazia hutsez".

"Jainkogoia ukanki eta" Ez dakigu xuxen Paulok noiz idatzi zuen letra hau, bainan dudarik ez da ebanjelioak baino lehenagokoa dela. Horrek erran nahi du haste hastetik, garbiki predikatua izan zela Jesus Jainko dela eta beraz betidanikakoa.

"Jainkogoia ukanki eta, ez da gogor lotu Jainkoaren berdina izaiteari" Hain zuzen, Jainko delakotz badaki Amodioa zer den, Amodioak urrik emaiten duela, Amodioaren munduan ez duela balio norberak bere eskubiderik edo merezimendurik aipa dezan !

"Eta izen guzietan gorena eman dio" Bai Jainko izena! " Jauna da Jesus" erran nahi baita Jainko dela Jesus."Zeruan, lurpean eta lurpean, guziak belaunika daitezen" Izaik idatzia zuen:" Belaun oro nere aitzinean makurtuko da, eta mihi orok nere izenean zin eginen..." (Is 45,23)

"Hiltzeraino obedituz" dio Paulok. Jesusek bere lurreko bizia umilki eta konfiantzaz beterik ereman du."Obeditu" horrek erran nahi du beharri eman diola bere Aitak erranari, beharri eman konfiantza osoan, baitzakien entzuten zuen guzia Amodioaren iturritik zetorrela!

"Eta mihi orok aitoren dezan Jaun dela Jesu kristo Aitarenekin aintzarako." Aintza, mugagabeko Amodioaren adierazpena da, Jesusek lur huntan ereman duen biziaren aintza! Ez nauke hemen Blaise Pascal-en gogoeta hau idatzi gabe (Preuves de Jesus Christ kapitulu). "Oh! Qu'il est venu en grande pompe et en une prodigieuse magnificence, aux yeux du coeur et qui voient la sagesse".

Ebanjelioa

Alleluia, alleluia !

**Ahuspez agur, zuri, Kristo, esker on eta laudorio :
Gurutzearen bidez duzu mundu guzia zuk salbatu.**

Jesu Kristoren Ebanjelioa jondoni Joaniren liburutik 3, 13-17

- 13 **Nehor ez da zerurat igan,
zerutik jautsi dena baizik, Gizonaren Semea.**
- 14 **Moisek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala,
hala altxatua izan behar du Gizonaren Semeak,**
- 15 **sinesten duten guziek haren bidez betiko bizia izan dezaten.**
- 16 **Alabainan, Jainkoak hain maite izan du mundua,
non bere Seme bakarra eman baitu:
haren baitan sinesten duenik nehor gal ez dadin,
bainan betiereko bizia izan dezan.**

17 Zeren Jainkoak ez baitu bere Semea mundurat igorri munduaren jujatzeko, bainan haren bidez mundua salbatua izan dadin.

Harrituak gaude ! Joani kurutzeaz hitz ospetsuz mintzo da: « *hala altxatua izan behar du Gizonaren Semeak* » Kurutze hori sofrikariozko tresna da, bainan guretako Jainkoaren amodioaren froga : « *Jainkoak hain maite izan du mundua* ». Nola oinazezko tresna izaiten ahal da ospetsua ? Igande huntan menturatzen gira aipatzerat « *kurutze ospetsua* ».

Bigarren harridura : kurutzea brontzezko sugeari konparatzen da, eta brontzezko sugearena Sinaiko basamortuan gertatu zen. Ordu arte gertakari miragarria zena, Moisek fedezko akta batera altxatzen du.

Etsenplu hori Jesusek bere kondu hartzen du : « *Moisek basamortuan brontzezko sugea altxatu zuen bezala, hala altxatua izan behar du Gizonaren Semeak, sinesten duten guziek haren bidez betiko bizia izan dezaten* ». Basamortuan populuak aski zituen fedezko begiak altxatzea Jainkoari buruz gorputzaren sendatzea ardiesteko, orai fedezko begiak altxatu behar ditu Kristo kurutzean denari, bihotzaren sendatezea ardiesteko.

Joanik behin eta berriz fedea aipatzen du : « *Alabainan, Jainkoak hain maite izan du mundua, non bere Seme bakarria eman baitu ; haren baitan sinesten duenik nehor gal ez dadin, bainan betiereko bizi izan dezan.* » « Sinestea » bost aldiz irakurtzen dugu testoan.

Basamortuan Izrael bakarrik da tokatua, bainan Jesusekin mundu guzia da gomitatua « *sinestera* », bizi nahi badu. Jesusek bi aldiz erraiten du : « *haren baitan sinesten duenak betiereko bizia izanen du* ». Hemen ez da, lehen bezala, gorputzaren sendatzerik aipu, bainan konbertitzea, bihozberitzea. Jesusen kurutzefikatzeaz Joaniren Ebanjelioak beretzen ditu Zakarias profetaren hitzak : « *Zilatu dutenari behatuko diote* ». Aipatzen du zinez gizonaren bihozberitzea : « *Daviden etxearen gainerat bihotz-damua eta otoitz-izpiritua ixuriko ditut. Neri, zilatu nautenari behatuko dautate* ». Azkenean gizonak sinesten du Jainkoaren amodioan.

Bi gisetara kurutzeari so egiten ahal diogu: kurutzea, gizonaren herraren froga dugu bainan, zenbat gehiago, amodioaren eta barkamenduaren seinalea. Guri erakusteko bere amodioa, onartzen du kurutzea : « *Ni ikusten nauenak Aita ikusten du* ». Kristo kurutzefikatua ikusten dugularik ikusten dugu gizonaren herra, bainan zenbat gehiago Jainkoaren amultsutasuna. Hortakotz erraiten ahal dugu « *kurutzea ospetsua dela* ».